

IRAKURMEN-PROBA

Egitekoa

Jarraian, Jon Sudupe saiakera-egilearen artikulua duzu. Arretaz irakurri, eta laburtu irakurritakoa, ideia nagusiak adieraziz (50-80 hitzetan).

Irakurmena ebaluatzean, kontuan izango da a) zer neurritan egin duen azterketariak agindu zaiona eta b) egoki egin duen.

Probaren iraupena: 40 minutu

Identitate-krisia

Identitate nazionalari buruzko eztabaida proposatu zuen Nicolas Sarkozyren Gobernuak 2009an: Zer da frantsesa izatea? Asmo horrek kontrako erreakzio ugari sortu zuen, eta Gobernuak atzera egin behar izan zuen. Bi jarrera bateraezin ageri ziren aurrez aurre: Errepublikaren betiko balioak goren zituztenak mutur batean, eta menderatutako identitateen aldekoak beste muturrean. Zatiketa handiegia.

Identitateari buruzko galdera ez da apeta kontua. Filosofia betidanik arduratu da norbere izaeraren auziaz. Gizaseme edo emakume, homosexual edo heterosexual, europar edo afrikar, zuri edo beltzaran, kristau edo musulman jaio gaitzek. Ezaugarri horiek guztiak gure nahimenetik kanpo daude eta ezin ditugu alde batera utzi. Naturak, historiak, gizarteak eta inguruak markatzen gaituzte.

Aniztasunaren gaiak mesfidantza izugarria sortu izan du beti Frantzian. Frantses jakobinismoak arrisku hilgarritzat jo izan du multikulturalismoa (2004ko lege batek debekatu egin zuen fular islamikoaren erabilera eskolan). Diferentzia kulturalen defentsak arriskuan jartzen ote ditu, bada, printzipio errepublikanoak?

Identitateari buruzko kezka, hortaz, oso bizirik jarraitzen du Frantzian. Horren erakusgarri da Alain Finkielkraut filosofoaren azken liburua: Zorigaiztoko identitatea. Arrakasta izugarria izan du. Egia esan, lehenago ere polemika bizia eragin izan dute haren liburuek. Pentsamenduaren porrota izenekoak, batez ere. Haren jarraipentzat har daiteke oraingo saiakera eztabaidagarri hau. Erlatibismo kulturala gaitzetsi zuen orduan, immigrazioa madarikatu du oraingoan. Hori dela eta, «erreakzionario berritzat» jo dute askok.

Finkielkraut 68ko maiatzkumea da, baina laster urrundu zen mugimendu haren pentsaeratik. Laizismoaren, hezkuntzaren, jendetasunaren eta, oro har, kultura frantsesaren gainbehera deitoratzen du. Frantses (eta europar) identitatea desgaiten ari dela dio. Islamaren arriskuaz ohartarazi gaitu. Katastrofe baten aurrean omen gaude.

Finkielkraut ez da frantziar peto-petoa (français de souche), judu poloniarren semea baita. Hala ere, Europar Batasunaren kontra eta nazio-identitate frantsesaren alde dago erabat. Nazio-identitate bakarra goratzetik kultur diferentzien apologia egitera pasatu omen gara. Immigrazioak frantses-izaera arriskuan jarri duelakoan dago. Horrek esplikatu luke Le Penen Fronte Nazionalaren gorakada.

Egun, gero eta etnia zein kultura gehiago biltzen dituzte Estatuak. Giza talde ezberdinek kemenez babesten dituzte euren kultur identitate bereziak. Nola integratu hain hiritar askotarikoak herritartasun bakar batean? Habermas alemaniarra galderari erantzuten saiatu da: Konstituzioan oinarritzen den kultura politiko komuna da irtenbidea. Identitate diferentetz zatitutako gizarteak berreraikitze bitarteko bat. Posible al da identitate komun bat? Nazioz gaindiko kultura konstituzional europarra proposatzen du Habermasek. Ideia berri batean konkretatzen da hori: kultura politiko komuna da hiritarrak batzen dituen, eta «abertzaletasun konstituzionalean» islatzen da. Pentsalari alemaniarra identitate postradizionalaren alde ageri da, argiro. Finkielkrautek, jakina, ez du hori sinesten.

Europa batua eraikitzeak ez du bereizitasun nazionalak zapuztea esan nahi, europar eremu komunaren —ekonomiko nahiz kulturalaren— barruan nazioz gaineko sistema politiko bat ezartzea baizik. Europa nazioz gaindiko horrek ez lituzke egungo nazioak eta desberdintasun kulturalak suntsitu edo ezabatuko. Horregatik, «kosmopolitismo kulturalizatunaz» mintzo da Thomas McCarthy pentsalaria: kultura politiko bakarra, kultura nazional askotarikoak. Aurrerantzean, baliteke aniztasuna izatea unibertsalismoaren itxura berria.

Jon Sudupe
Berria, 2015-01-09
(moldataua)

IDAZMEN-PROBA

Egoera

Informazioa eman eta gogoeta eragiteko xedez, zure espezialitate-arloko gai bati buruzko artikulua bat egitea eskatu dizu aldizkari espezializatu bateko arduradunak. Eta zuk onartu egin duzu gonbita.

Egitekoa

Idatzi artikulua, kontuan izanik egoera, eta saiatu gai horrekiko interesa pizten eta informazio esanguratsua ematen.

Gutxieneko luzera: 400 hitz

Probaren iraupena: 160 minutu (2 ordu eta 40 minutu).

Ebaluazio-irizpideak

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauak: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

ENTZUMEN-PROBA

Jarraibideak

Jarraian, *Euskadi Irratiko* Amarauna saioan Fermin Erbitik egindako ekarpena entzungo duzu bi aldiz.

Arretaz entzun, eta laburtu entzundakoa, ideia nagusiak adieraziz (50-80 hitzetan).

Entzumena ebaluatzean, kontuan izango da a) zer neurritan egin duen azterketariak agindu zaiona eta b) egoki egin duen.

Probaren iraupena: 40 minutu

MINTZAMEN-PROBA

Egoera

Finantza-erakunde baten fundazioak inbertsio-egitasmo bat abiatu nahi du zure espezialitate-arloa sustatzeko. Aditua zarenez, zurekin jarri dira harremanetan, sustapen-plangintza egokia diseinatzen lagun diezaiezun. Gaur bilera daukazu banketxean, fundazioaren arduradunekin.

Egitekoa

Adituaren roletik eta zure esperientzian oinarrituta, azaldu fundazioaren arduradunei zure espezialitate-gaia eta azpimarratu zeintzuk diren, zure ustez, susta daitezkeen alderdiak edo inbertsio-behar handiena dutenak. Arrazoitu zeure iritzia.

Probaren iraupena

Prestatzea: **30 minutu**

Mintzamen-saioa: **10 minutu**

Mintzamina neurtzeko ebaluazio-irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearekiko egoki jardun duen. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua.

Koherentzia-kohesioa

Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa . Ideiak argi adierazita eta ondo lotuak dauden.

Jarioratasuna

Erritmoa eta abiadura. Ebakeraren, bolumenaren, intonazioaren eta isiluneen erabilera.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauak: deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa